

Bizkaiko Lanbide Heziketako ikastetxeetako Hizkuntza Normalizazio Arduradunok sinadurak biltzen hasi gara, aldarrikapen kanpaina bat bideratu asmoz.

LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ ALDARRIKATZEN DUGU.

Ez dugu sentitzen Hezkuntza sailetik Lanbide Heziketa euskalduntzeko bide-orriak, inondik inora, babesten gaituenik. Lanbide Heziketaren planean ez da **euskara** aipatzen eta gure plana “euskal” baldin bada, euskarak zutabe nagusia izan behar du.

Oraindik, Lanbide Heziketan euskara normalizatzeko bide luzea daukagu egiteko, eta garrantzitsua deritzogu Normalizazio batzorde sendoak eta arduradun profilak eta bultzatzaile figurak sortzeari. Gaur egun, Berritzegunetik jasotzen dugun informazioa eta bertan daukagun saretzeko aukera ere baliagarria da, baina ez da aski.

Lanbide Heziketak, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren jarraipena izanik, beharrezkoa du euskararen eskaintza parekatzeko plan estrategiko bat lanbide heziketa integratu osoari eragingo diona Bide-orri esanguratsua eta emankorra, enpresak euskalduntze bidean akuilu lana egingo duena.

Egungo irakasle guztiek euskara gaitasuna izan beharko lukete, hizkuntza eskakizunaren arabera plazak perfilatzeak zentzua galdu du eta bereiztekotan, euskara gaitasunik ez daukatenentzat bereiztu beharko lirateke. Beraz, HE1-etik HE2-ra pasatzeagatik lehentasuna ez galtzea eskatzen dugu, plazak daukan profilak irakasle ongonortasuna edo jarraipena ez baldintzatzeko. Era berean, itunpeko ikastetxeetako irakasleen euskararekiko baldintzak parekatzea ere beharrezkoa da.

Ikasleak euskaraz **matrikulatzeko kanpaina ganorazkoagoa eta indartsuagoa behar dugu, euskaraz ikasteak suposatzen duen balio erantsia azpimarratu beharko litzateke**. D eredutik datozkigun ikasle askok A eredia aukeratzen dute, erraztasunagatik eta informazio ezarengatik, baita euskarak dakartzkien onurez eta abantailez ohartarazten ez ditugulako.

Hortaz, **euskaraz matrikulatu eta euskaraz ikasteko aukera hartu duten ikasle horiei lehentasuna eman behar genieke**, bidea eman ikasle horiek euskaraz ikas dezaten, talde kopurua minimora heltzen ez bada ere, hau da, beti euskararen alde jokatu, gure hizkuntza gutxitua eta gutxiagotua baita.

Bestalde, A eredian ikasten duten ikasle askok ez dute euskarazko inongo erreferentziarik, hau da, ez daukate euskararekin inongo harremanik, nahiz eta gure Hezkuntza Legeak hurrengo adierazten duen:

III. HEZKUNTZA-SISTEMAREN BALIOAK Euskal Hezkuntza Sistemak konpromiso berezia hartzen du euskararekin –Euskal Herriko hizkuntza propioa baita– eta kulturarekin eta haren transmisioarekin, euskara eta euskal kultura identitate-, adierazpen- eta elkarbizitza-tresnatzat hartzen dituen heinean, bai eta beste hizkuntzekin ere.

Euskara hizkuntza propioa izanik, zergatik ingelesa irakasten da eta euskara ez? Ingelesa jasotzen duten moduan, euskara da gure ardatza eta gure hezkuntzan beti izan behar

luke presentzia esanguratsua, horrela ba, **A ereduan euskararen ezagutza minimoa ziurtatu behar da, eta euskararen presentzia ordu zehatzekin bermatu.** A ereduko ikasleek ere gure hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko aukera izan behar dute.

Badakigu tokian tokiko errealitate soziolinguistikoak desberdinak direla, baina horrek ezin du euskararen normalizazioan oztopoa izan, euskarak bere lekua behar du, Irunetik Barakaldora, Gasteiztik Azpeitiara... euskaraz ikasi, lan eta bizi nahi dugulako.

Horregatik guztiagatik, Lanbide Heziketa euskalduntzeko denon indarrak beharrezkoak dira, baina Hezkuntza sailetik, eta Lanbide Heziketako arduradunei apustu sendoa, garbia eta argia egiteko eskatzen diegu.

Hona hemen arrazoi nagusien laburpena kanpaina honekin bat egin eta babes emateko:

- 1- Lanbide Heziketan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren jarraipena izanik, euskararen eskaintza parekatzeko **PLAN ESTRATEGIKOA** izatea. Bide-orri zentzuduna eta efektiboa.
- 2- Egungo irakasle guztiei euskara gaitasuna eskatzea.
- 3- Euskaraz ikasteak suposatzen duen balio erantsia azpimarratzen duen matrikulazio-kanpaina ganorazkoagoa eta indartsuagoa egitea.
- 4- Euskaraz matrikulatu eta euskaraz ikasteko aukera hartu duten ikasleei lehentasuna ematea.
- 5- A ereduan euskararen ezagutza minimoa ziurtatzen dituen ordu zehatzak bermatzea.

	IZEN-ABIZENAK	NAN	SINADURA
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			
11			
12			
13			
14			
15			
16			
17			
18			

Benetako Euskarazko Lanbide Heziketa aldarrikatzeko sinaduren bilketa.

19			
20			
21			
22			
23			
24			
25			
26			
27			
28			
29			
30			
31			
32			
33			
34			
35			
36			
37			
38			
39			
40			
41			
42			
43			
44			
45			
46			
47			
48			
49			
50			
51			
52			
53			
54			
55			
56			
57			
58			
59			
60			
61			
62			